

HERRI BIDEAN TERRAZAK ETA HANKA BAKARREKO MAHAIK JARTZEA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA.

1. artikulua. Aplikazio-araudia.

Ordenantza hau eman da artikulua hauek direla bide: 1985eko Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 49 eta 85 artikulua, 1986ko Tokiko Korporazioen Ondasunei buruzko Arautegiaren 77. artikulua, 1986ko Tokiko Korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Arautegiaren 41. artikulua eta 1995eko Tokiko Korporazioen Zerbitzuari buruzko Arautegiaren 1-17. artikulua.

2. artikulua. Xedea.

Honako ordenantza honen xedea da herri bidean terrazak eta hanka bakarrek mahaiak eta batzuen eta besteen instalazio osagarriak jarri ahal izateko araubide teknikoa eta juridikoa ezartzea hala nola eguzki-babesak, olanak, eta abar.

3. artikulua. Definizioa.

Aurreko artikuluan ezarritako ondorioetarako, ostalaritzaren adarreko jarduera baten aldi baterako osagarriak diren mahaien eta aulkien multzoari eta behin-behineko instalazio finkoei eta mugikorrei deritze terrazak eta hanka bakarrek mahaiak, betiere udal jarduerarako udal baimena badute.

4. artikulua. Aurreiazko lizentzia lortu beharra.

Herri bideko instalazioek erabilera komun bereziko kategoria juridikoa dute, eta hala denean, udal lizentzia behar da horiek erabiltzeko. Ordenantza honetan ezarritakoarekin bat etorritik emango da baimena.

5. artikulua. Aurreiazko lizentzia lortu beharra salbuestea.

Ordenantza honetan arauturiko lizentzia lortu beharra ez da aplikatuko 3. artikuluan emandako definizioaren barruan egon arren ondoko kasuren batean dauden instalazioetan:

a). Herri jabariko ondasunetan edo ondare ondasunetan daudela-eta udalaren administrazio emakidaren itzalpean eginiko jardueren jarduera osagarriak direnean.

b). Udal organo eskudunak ezarritako egutegiaren barruan eta moduetan eginiko herri jaietako aldi baterako jarduerak direnean.

6. artikulua. Instalazioa baimentzen deneko guneen izaera.

Terrazak eta hanka bakarreko mahaiak jartzeko baimena emango ahal izango da jabari publiko edo pribatuko eta erabilerako publikoko ondasunetan.

7. artikulua. Lizentzia ukatzeko zioak.

Baliteke udal organo eskudunak hanka bakarreko mahaiak, terrazak eta horien elementu osagarriak jartzeko baimenik ez ematea herri onurak hala eskatzen duenean, tokia, kokapena, bide-segurtasuna edo beste edozein inguruabar dela-eta.

8. artikulua. Instalazioak autoen zirkulazioa duten kaleetako espaloietan.

1. Instalazioaren luzetarako gehieneko garapenak ez du gaindituko jarduera nagusiaren euskarria den establezimenduaren fatxadaren luzera, salbu eta alboko establezimenduek idatzizko baimena ematen ez badute, eta alboko lokaletan eta etxebizitzan sartzeko modua bermatu beharko da.

2. Ahal dela luzetara jarriko dira espaloien ertzaren alboan, ertz horretatik gutxienez 30 zentimetrora.

3. Libre gelditzen den espaloien zabalera gutxienez 1,80 metrokoa izango da.

9. artikulua. Instalazioak oinezkoen kaleetan.

1. Autoen zein oinezkoen trafikoaren beharrak izango dira kontuan lizentziak ematerakoan.

2. Instalazioaren luzetarako gehieneko garapenak ez du gaindituko jarduera nagusiaren euskarria den establezimenduaren fatxadaren luzera, salbu eta alboko establezimenduek idatzizko baimena ematen ez badute, eta alboko lokaletan eta etxebizitzan sartzeko modua bermatu beharko da.

10. artikulua. Instalazioak plazetan eta gune libreetan.

Kasu jakinaren berezitasunen arabera ebatziko dira hanka bakarreko mahaiak eta terrazak plazetan eta gune libreetan jartzeko eskabideak, betiere muga orokor hauek beteta:

- a) Etenik gabeko gehieneko luzerak ez du gaindituko plazaren edo gune librearen erdia.
- b) Instalazioaren gehieneko zabalerak ez du gaindituko plazaren edo gune librearen herena.
- c) Etxebizitza eta lokaletarako sarrera bermatu beharko da.

11. artikulua. Lizentzia eskaera.

1. Eskatzaileak alkate jaunari zuzendutako eskabidea aurkeztu beharko du erregistro nagusian artikulua honetan aipaturiko agiriekin batera. Hauexek agerraraziko ditu eskabidean:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak.
- b) Datu pertsonalak: helbidea, telefonoa eta NAN.
- c) Jardueraren izena eta kokapena.
- d) Jardueraren datuak (Ekonomi Jardueren gaineko Zerga, I.F.K., etab.)

2. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

- a). Jarduera egiteko udal baimena izateari buruzko egiaztapena (instalazio edota irekiera lizentzia).
- b). Alboko lokalen eta etxebizitzaren baimena izatea egiaztatzea, baimen hori beharrezkoa bada.
- c). Gutxienez 1:100 eskalako kokapen-planoa, instalazioan hartutako eremuaren nahikoa xehetasunarekin, baita mahaien eta aulkien banaketa, alboko babesak, etab. ere. Halaber, fatxadaren luzera eta emaitzako gune libreen zabalera adierazi beharko dira. Gainera, edozein hiri elementu ere agerrarazi behar da horrelakorik badago (trafikoa seinaleak, zuhaitzak, bankuak, zutabeak, hiri altzariak, etab.), baita udal zerbitzuen baliozko ukipenak ere (ura, saneamendua, gasa, etab.).

12. artikulua. Ebazpena.

1. Eskatera egin ondoren ordenantza honetan eskaturiko moduan, eta aurretik txosten teknikoa eta juridikoa eman aurretik, ebazpena emango du udal organo eskudunak legean ezarritako epeetan.

2. Lizenziaren dokumentuan, hauexek agerraraziko dira: instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak, hartu beharreko eremua, mahai eta aulkien kopurua, emakidaren indarraldia eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako berezitasunak.

3. Eskaturiko baimena emateari egoki irizten ez bazaio edo eman beharreko baimenak aldaketarik badakar eskaturikoarekiko, entzunaldia emango dio Udalak eskatzaileari, egokiena irizten diona alegatzeko modua izan dezan eskatzaileak.

4. Eskatzaileak herri jabaria hartzeari dagokion prezio publikoa edo ordenantza honen arabera ezarritako isunak ez ordaintzeak lizentzia ukatzea eragin dezake.

13. artikulua. Lizentziaren baldintzak.

1. Jabetza eskubidea salbu utzita eta hirugarrenei kalterik gabe ulertu behar da beti lizentzia, eta ezin izango dira lizentzia horiek argudiatu onuradunak jarduerak egitean izan lezakeen erantzukizun zibila edo penala salbuesteko edo gutxitzeko.

2. Udal lizentzia behin-behinekoa izango da beti, eta udal organo egokiak instalazioa herri bidetik kentzeko agindua eman dezake. Baimendutako instalazioaren titularraren pentzura izango dira gastuak, baina horrek ez du emango kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik, trafikoa, urbanizazioa edo onura orokorreko beste edozein inguruabar dela-eta hala egitean gomendatzen denean.

14. artikulua. Tasa eta bermea.

1. Lizentziaren titularrak tasa ordainduko dio Udalari, ordenantza fiskalean ezarritako kopuruan eta moduan, eta ordainketa hori autolikidazioaren bidez kudeatu daiteke.

2. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, 150 euroko bermea ordaindu beharko ditu eskudirutan lizentziaren titularrak, tasa ordaintzearekin batera. Ordainketa egiteko borondatezko epea igarotzen bada eta bermea jarri ez bada, iraungi egingo da baimena. Hortaz, beste

lizentzia bat eskatu beharko du eskatzaileak, hala denean, instalazioa egin ahal izateko. Terrazak eta hanka bakarreko mahaiak jartzeko emandako lizentzien titularrek betebeharrak betetzen dutela egiaztatzen eta berehala itzuli beharko dira jarritako bermeak.

15. artikulua. Instalazioaren baldintzak.

Lizentzia lortu ondoren, udalaren zerbitzu teknikoekin jarriko da harremanetan lizentziaren titularra, eta zerbitzu horiek har daitezkeen gehieneko eremua mugatuko dute tokian bertan.

16. artikulua. Denboraldia.

Hanka bakarreko mahaiak (mahai bat eta lau aulki sartzeko edukiera duena):

—Urteko iraupena.

—Udako denboraldian, maiatzaren 1etik urriaren 31ra arte.

17. artikulua. Ordutegia.

1. Udal jarduerak baimenduta duen ordutegia edozein dela ere, ordutegi honetara dago mugatuta hanka bakarreko mahaien edo terrazaren erabilera:

Hanka bakarreko mahaiak herri bidean jartzeko ordutegiak:

—Asteleheneretik ostiralera: 10:30ak arte.

—Larunbat, igande eta jai egunetan: 11:00ak arte.

Hanka bakarreko mahaiak herri bidetik kentzeko ordutegia:

Udako ordutegi berezia (ekaina, uztailea, abuztua eta iraila):

—Igandetik ostegunera: 21:00ak arte.

—Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 23:00ak arte.

Urteko gainerako sasoiarako ordutegia:

—Igandetik ostegunera: 20:00ak arte.

—Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 22:00ak arte.

18. artikulua. Instalaziotik kentzea.

1. Aurreko artikuluan ezarritako ordutegia amaitutakoan, baimendutako material guztia bilduko du instalazioaren titularrak, eta material hori inola ere ez da egongo herri bidean 20 minutu igaro ondoren.
2. Baimendutako materiala kendutakoan, lizentziaren titularrari dagokio hartutako eremua garbi izatea.

19. artikulua. Instalazioaren titularraren betebeharrak.

1. Betebehar orokorrei eta ordenantza hau aplikatzearen ondoriozko betebeharreri kalterik egin gabe, erabiltzeko baimenduta dagoen lurra eta instalazioa bera eta horren elementu osagarriak egoera onean mantendu behar ditu instalazioaren titularrak garbitasun, segurtasun eta apaintasunaren aldetik. Horretarako, beharrezko bitarteko guztiak izan behar ditu hala nola paperontziak, hautsontziak, etab.
2. Debekatuta dago kanpoko barrak, bozgorailuak edota musika makinak jartzea.
3. Instalazioaren titularrak zaindu egingo du gainerako auzokideek lasaitasuna izateko duten eskubidea errespetatzen dela. Hortaz, galarazi egingo ditu instalazioan iskanbilak, liskarrak edota zaratak oro har, bereziki 22:00etatik aurrera.

20. artikulua. Arau-haustek.

Arau-haustek dira:

- a) Auzokideei eragozpenak ekartzea.
- b) Terrazak edo hanka bakarreko mahaiak behar bezalako garbitasunarekin ez izatea.
- c) Terrazak edo hanka bakarreko mahaiak hartutako tokia garbi ez uztea herri bidetik kendu ondoren.
- d) Lizentzian baimendutakoa ez bezalako tokia hartzea.
- e) Lizentzian ezarri ez diren mahai eta aulkien edo beste objektu batzuen kopurua jartzea.

f) Mahaiak eta aulkiak tolestatuta eta biltegian gordeta izatea establezimendutik kanpora.

g) Musika aparatuak edo bozgorailuak jartzea.

h) Ordenantza honetan ezarritako ordutegia ez betetzea.

i) Lizenziaren beste baldintza bat edo ordenantza honetan bildutako edozein manu ez betetzea.

21. artikulua. Zehapenak.

Honelako zehapenak egin ahal izango dira:

a) Lehen aldian ohartarazpena egin ahal izango da araua ez betetzeagatik.

b) Bigarren aldian 100 euroko zehapena izango da emandako lizentzia ez betetzeagatik.

c) Hirugarren adian 200 euroko zehapena izango da, eta 6 hilabetez etengo da baimena.

d) Laugarren aldian 600 euroko zehapena izango da, eta urtebetez etengo da baimena.

e) Bosgarren aldian 1.200 euroko zehapena izango da, eta muga gabe etengo da baimena.

22. artikulua. Udal lizentziarik gabeko instalazioak.

1. Udal organo eskudunak, eskatzaileari entzunaldia eman baino lehen, berehala kendu ahal izango ditu ordenantza honetako 6. artikuluan aipatzen diren tokietan lizentzia barik jarritako terrazak eta hanka bakarreko mahaiak, eta gainera, udal biltegietan gorde ahal izango dira horiek, arauko zehapenak ezartzeari kalterik gabe.

2. Zigor-espedientea izapidetu baino lehen, zehapen hauek ezarri ahal izango dira, instalazio osoa kendu den ala ez aintzat hartu gabe:

a) Hirigintzako Arautegian ezarritako diru-kopuruko isuna.

b) Establezimendua ordenantza honetan arauturiko geroko baimenak lortzeko aukera kentzea gehienez 2 urteko epean.

23. artikulua. Ordezko betearazpena.

Baldin eta instalazioaren arduradunak ez badu betetzen herri bidean jarritako elementuak kentzeko udal agindua, ordenantzan ezarritako kasuetan, Udalak elementuok kenduko ditu, eta udal biltegietan gordeko dira. Biltegitik kendu ahal izango ditu jabeak, baina aurretik tasak ordaindu beharko ditu.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

Lizentziak eman diren zehaztapenei lotuko zaizkie ordenantza hau indarrean sartu baino lehenago emandako lizentziak.

Bigarrena.

Ordenantza indarrean sartu baino lehen aurkezturiko eskabideak ordenantza honetan xedatu denarekin bat etorritz ebatziko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Baliorik gabe gelditzen dira ordenantza honek dakartzan manu hauen kontrako edo bat ez datozen udal xedapen guztiak.

Bertan ezarrita ez dagoenari dagokionez, tokiko araubidearen arau orokorretan xedatu dena bete beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamabost egun baliodunen buruan.